

Guztia prest etxebizitzaren zozketerako

Goiegi-Ibarreko 76 etxebizitzaren banaketa urriaren 1ean egingo da

Lasarte-Oriako Udalak Goiegi Ibarreko Babes Ofizialeko 76 Etxebizitzaren zozketa urriaren 1ean egingo dela jakin arazi du.

Alkateak eskaintako prentsaurrekoan, zozketaren nondik norakoak azaldu zituen, hala nola, 1.093 eskaera sartuko direla zozketan.

Eskaera horiei dagoeneko zenbakiak banatu zaizkie, "aleatorioki egin da eta zenbakiak jakiteko Udaletxera gerturatu edo Udalaren webgunean *Kontsulta ezazu zure egoera* atalean begiratu ditzaite" adierazi zuen.

Leku mugatua eta sarrera

Honetaz gain, zozketa Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan egingo dela aurreratu zuen, "Etxebideki kiroldegian egin zuenean gastu handia izan zelako, aukiak, proiektorea, pantaila... gauza asko alokatu behar dira."

Zozketa egingo den lekua erudikera mugatua denez, sarrerak egingo direla aipatu zuen Zaballos alkateak eta eskaerako pertsona bakarra sartu ahal izango dela, minusbaliatuak diren pertsonen kasuan izan ezik. Kasu horre-

tan, laguntzaile bati ere emango zaio pasatzeko baimena.

Aurretik hartzea hobe

Zozketara sartzeko sarrera etxebizitza saileko bulegoetan eskuratu ahal izango da. "Egunean bertan ere, eskuragarri egongo dira kultur etxean, baina aurretik hartzea gomendatzen dut" adierazi du alkateak.

Etxebizitza eskatzailea bada, NANA erakutsi beharko du; eskatzailea zozketara ezin bada joan, beste norbait bidali dezake eta sarrera lortzeko eskatzailearen NANaren fotokopia eraman beharko du.

Orduak

Honela urriaren 1ean, 11:00etan, 3. Kupoa I. Taldearentzat, hau da, 35 urte baino gutxiagoko kide bateko edo bi kideko unitate familiarrentzat 31 etxebizitzaren zozketa egingo da.

Gainontzeko kupoen eta taldeen zozketa, 12:30an egingo da.

Honetan, beste bost zozketa egin eta 45 etxebizitza banatuko dira: lau, mugikortasun urriko kidea duten familiarrentzat, beste lau, bost edo



Lasarte-Oriako alkateak Udalaren Babes Ofizialeko Etxebizitzaren lehenengo promozioiko zozketa azaldu zuen.

kide gehiago duten familiarrentzat; zazpi, 35 urte baino gutxiagoko hiru eta lau kideko familiarrentzat; hamabost, 35 urte baino gehiagoko kide bateko edo bikoentzat eta beste hamabost, 35 urte baino gehiagoko hiru eta lau kideko familiarrentzat.

Zozketa eta onuradunak

Mahaian Udaleko notarioa, kontu-hartzailea, ondasuneko tekniko eta informatikoa egongo dira, Jesus Zaballos alkatearekin batera.

Saio bakoitzaren hasieran, zozketa sistema azalduko da eta proba bat egingo da jendeak ongi uler dezan.

Zozketa egin eta onuradunak momentuan jakingo dira. Ordenagailuak zerrenda eman eta alkateak irakurriko ditu herritarren izenak.

Honetaz gain, zerrendak Kultur etxeko sarreran jarriko dira eta onuradunak gain, erreserbak ere agertuko direla gaineratu du alkateak, "eskatzaile guztiak bere egoera jakin dezaten".

Era berean, bertara hurbildu ez direnak, urriaren 4an edo 5ean, bere egoera jakin ahal izango dute udaleko webgunearen bidez.

Etxebizitzak banatu

Hala ere, zozketan onuradunak direnak behin behineko esleipendunak dira.

"Etxebideri onuradunen datuak bidaliko dizkiogu eta honek datu horiek onestean etxebizitzak banatuko ditugu," azaldu zuen Lasarte-Oriako alkateak. •



Elkarrekin euskaraz aritzeko *Solaskide* programan izena emateko epea zabalik dago /4

GAIA /3

120 odol emaileri behar dira Gipuzkoan eskaerei aurre egiteko



Areto futboleko Aldatz taldearen helburua mailari eustea izango da aurten /6

Zitek zientzi eskola

- Taldeka zein banakako eskolak
- Ikasteko teknikak
- Informatika ikastaroak:
 - ume eta helduentzat
 - goizez, arratsalde eta larunbatetan

MATEMATIKAK
FISIKA
KIMIKA
ESTADISTIKA
LENGOAI
EUSKARA
INGELES
MARRAZKETA
TEKNIKO
AUTOCAD
INFORMATIKA

Goikale 12 behe • Tel.: 943 363106
20160 Lasarte-Oria

Bideo Lagunak

Inguruko erakusketarik onena!



Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Neure kabuz



Zinemalditik

Ala egokitu zait honakoan eta nahiko uste gabean gertatu bada ere gauza, benetan, ederra eta sakona ere bada. Beno baina, zertaz ari naiz? Ba begira, SIGNIS deitzen den sari bat bada, UNESCO bamean dagoen elizako elkarte kultural baten izenean ematen dena eta, aurren suertea izan dut, bertako epai mahaian egokitzarekin. Gehien baloratzten dena pelikulen sendotasun artistikoarekin batera, giza balioen eta espiritualtasunaren presentzia da eta, era berean, bizitzako galdera sakonei ematen zaiei joko.

Zer nolako pelikulak ikusi ditugun? Sail ofizialekoan ibili beharra daukagu eta bertatik aukeratu. Oraindik ez dakit zein izango den saritua baina, bai esan dezaket, oso goi mailako zinea ikusi ez badugu ere, gaiak jorratzean eta bertan azaltzen diren ikuspuntuak indartsuak direla eta oso onak. Besteak beste, familien egoera berrietan eta bere baitan gertatzen diren istorio ezberdinetan aurkitzen ditugun lotura hunkigarriak, edo bizitza eta heriotza uztarturik sentitzeko amatasunean gartzatzen den bizipena, berdin adibidez, gerrateak estalirik, pertsonen baitan ezkatuzten ditugun isilekoak eta beste hainbat gauza eder.

Ez dago ukatzerik, oraindik ere zinemak baduela eduki, telebista eta beste informatika bide berriak eman ezin duten xarma bat, batez ere, Donostia bezalako zinemaldi baten erakusten den jarrera, jendetza eta gosea ikusi eta gero. Bai, badira beste bide egoki asko ere, baina nik sumatu dudana hunkigarritasun hori berria ez bada ere, berriturik sentitu dut eta honelako festibalei, batzuetan, kritika gogorak egiten badiogu, badute arima bat galdutako behar ez dena, naiz beste alderdi askoetatik zenbait gauza oso axalekoak izan.

Xabier Andonegi

Zorion-agurrak



Idoia

Zorionak marisorgin! Hamaika muxu potolo Jalguneko lagunen partetik.



Aizpea eta Eneritz

Zuen zorionak pasa dira baina ez gara zuetaz ahaztu. Muxu erraldoia familiaren partetik



Maialen

Zorionak Maialen! Nahia, Xabi, Gaizka eta famili guztiaren partetik!



Malen

Zorionak eta 4 musu pottolo, Nahia, amatxo eta aitaxoren partetik.



Unai

Zorionak zure bostgarreren urtebetzean! Zure familiaren partetik.



Idoia eta Gabriela

Zorionak bikote! Muxu handi bat familiaren partetik. Merienda zuen kontu!



Unai

Zorionak eta hiru muxu handi familiaren partetik. Ondo-ondo pasa!



Arai eta Lucas

Zorionak piratak zuen 5. Urtebetzean. Ongi pasa.

<p>Jaiotzak</p> <ul style="list-style-type: none"> Maialen Zuazu Blánquez, irailaren 18n Unai Goikoetxea Gaztelumendi, irailaren 11n Nahia Iglesias López, irailaren 11n 	<p>Heriotzak</p> <ul style="list-style-type: none"> Antonio Díez Giralda, irailaren 20n 80 urte zituela Juan Carrillo Caballero, irailaren 11n 72 urte zituela
--	---

Azoka txikia

Eskaientza inmobiliarioak

• Bi garaje alokatzen ditut, bata itxia eta bestea irekia Atsobakar azoko Green plazan. Harremanetarako telefono zenbakia: 943 492 558.

• Irakaslea naiz eta pisua behar dut alokairuan Lasarte-Orian edo inguruan, 2011ko ekainera arte. Harremanetarako zenbakia, 616 059 811, (Isa).

• Bi logelako etxe bat alokatzen da 700 euroren truke. Harremanetarako telefono zenbakia: 627 995 760.

• Pisu konpartitu batean gela bat alokatzen dut Lasarte-Orian. Telefonoa: 600 612 085.

Lan-eskaientzak

• Emakume euskaldun bat behar dugu adineko pertsona bat zaintzeko. Harremanetarako telefonoa: 610 953 258, Pili. 13:00etatik 15:00ak bitartean deitu.

Lan-eskariak

• Mutil gaztea eskaintzen da erakuntzan edo baserriko lanak egiteko. Telefonoa: 677 593 772.

• LH eta DBHko haurrei klase partikularrak emango nituzke. Telefonoa: 670 219 022, Lorena.

• Lasarteko neska gaztea eskeintzen da kurtsoan zehar lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak ematen. Harremanetarako telefonoa, 677 823 141.

• Andre bat eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Euskaraz badaki. Telefonoa: 618 097 676.

• Ingelesa ikasteko klase partikularrak ematen ditut astelehentik larunbatera. Harremanetarako telefonoa: 693 601 222.

• Laguntza klaseak ematen dira, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikiak, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Telefonoa: 943 376 888 edo 646 645 445 (Maria).

Oharrak jartzeko:

btxintxarri@btxintxarri.info • www.btxintxarri.iragarkilaburrak.com
www.btxintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 24

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 25

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Igandea, 26

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 27

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteartea, 28

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteazkena, 29

Urbistondo, San Franzisko 1
Tel.: 943 366567

Osteguna, 30

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldedia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrirek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Odol atertze egunetan 57 odol emari egiten dira herrian. Odol eskaerari aurre egiteko, 10 emari gehiago egin behar lirateke.

Odol emate kopuruari eutsi bazaio ere, ez da nahikoa

120 odol-emaile berri behar dira eskariei erantzuteko

Lasarte-Oriako odol-emaile ordezkaritzak urte hasierako datuak eskaini ditu. Odol emari kopurua zertxobait igo bada ere, iaz baino 7 emari gehiago, datu horiek ez dira nahikoa eskaerei aurre egiteko.

2009ko abuztutik aurtengo abuztura 721 emari izan dira Lasarte-Orian. Honek mila biztanleko eta urteko 40,39 emari egiten direla adierazten du. Eta iazko datuak hobetzen ditu, baina odol beharrei erantzuteko kopuruaren ratioa 50a da eta, beraz, honen azpitik dago gure herria.

Kopuru hori lortzeko, bi edo hiru urtetan, 67 emari egin beharko lirateke odol

ateratze eguneko; egun, 57 egiten dira.

Eta hori guztia lortzeko, 120 odol-emaile berri behar direla aipatu dute, "50 emaile berri behar dira, 3 urteetan jarraian."

Krisia eta neurriak

Datu hauek kontuan izanik, odol emarien kopuruak mantendu dira, baina odol emateko gero eta traba gehiago daudela ohartarazten du ordezkaritzak.

Izan ere, bizi garen krisi egoera honek ere emarietan eragina izan duela aipatu digute, "langabeziak eta krisiak herritar batzuetan eragin latza izan du eta depresioak

ugaritu dira. Hau sendatzeko, medikazioa hartzen badute, ezin dute odoliki eman."

Honetaz gain, odol emaleek jasan behar dituzten neurri eta kontrolari egokien diete errua, "gero eta neurri eta kontrol zorrotzagoak daude ateratzeetan, edozein gaixotasunengatik kutsatua dagoen odolara egon ez dadin."

Odol ateratzea astelehenean

Gainera, astelehen arratsaldean hilabeteko odol ateratzea egingo da Osasun Zentro berrian, 18:30etik 21:00etara.

Honela, ordezkaritzak herritarrek animatu nahi dituen batetik odol ematera eta bestetik, emaile berri izatera. •

Gripearen aurka, txertoa

"Konplizeak gripearen aurka" kanpaina hasi zen aurreko astelehenean. Arrisku taldeetan daudenei zuzenduta dago

gripearen kontrako txerto kanpaina hau.

Honela, alde batetik gaixotasun kronikoa edo diabe-

tea duten herritarrek eta 65 urtetik gorakoek jarri behar dute txertoa, eta bestalde, baita osasunaren arloan edota zahartzaroan daudenein lan egiten dutenek ere.

Horiek guztiak, urriaren 31ra arte dute txertoa jartzeko epea zabalik.

Bolantea eta ordua

Txertoa jartzeko osasun zentroan hartu behar da ordua, ez da besterik egin beharrik.

65 urtetik gorakoek, osasun-txartel indibiduala edo NANA eraman beharko dute.

Eta aurretik aipatutako beste arrisku-talderen batekoak direnek, ohiko medikua-rengana joan behar dute txertoa jarri ahal izateko bolantea hartzera. •



Arrisku taldeek gripearen aurkako txertoa jartzeko aukera dute, urriaren 31a arte.

GIZARTE ZERBITZUAK, ENPLEGU ETA KOOPERAZIOA

Diru-laguntzen eskaerak

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako, Enplegu eta Kooperazioko Departamentuak gizarte-ongizatearen alorrean lanean diharduten erakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die datorren urriaren 1ean irekiko dela sail honek eman ohi dituen diru-laguntzen eskaerak aurkezteko epea.

Horretarako eskariak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, 9:00etatik 13:30era bitartean, eskatutako agiri-ekin batera, hau da, memoria, gastuen justifikazioa eta jardueren proposamena.

Hori guztia aurkezteko epea urriaren 1etik 24era egongo da irekia, bi egunok barne. •

STOCK ETA SALDOEN III. AZOKA

Zozketak sarrerarekin

Asteburu honetan, Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpea Merkataritza elkarteak antolatzen duen Stock eta Saldoen azoka egingo da Michelingo pilotalekuan.

Azoka larunbatean 10:00etatik 21:00etara egongo da irekia eta igandean, 10:00etatik 20:00etara. Sarrerak euro bat balio du eta honekin zozketan sartzeko aukera izango duzu. Bi sari desberdin egongo dira, batetik Martin Berasategin afari bat edo Araneko haranera asteburu-pasa bat. •

TTAKUN K.E.

Argazkigintza ikastaroa

Argazkien mundua hainbeste aldatu den honetan, batzuk diapositiben garaian geratuta dira. Horregatik, Ttakun kultur elkarteak argazkigintza ikastaroa antolatu du.

Oinarri oinarriko ikastarotxo bat da hain erraz egiten diren argazkiak modu txukun batean ordenagailuan jaso eta laguntzat eta gure buruarentzat ere diaporama edo argazki muntaiak egiten ikasteko.

Ikastaroa urriaren zehar egingo da, larunbata goizetan, 10:30etik 12:30era. Beraz, saioak urriaren 2, 9, 16, 23 eta 30ean izango dira. Ttakun kultur elkartearen eskainiko da ikastaroa eta prezio 15 eurotako izango da.

Argazkigintza ikastaroan parte hartu nahi duenak 943 371 448 telefonora deitu behar du. Izena emate epea irailaren 30era arte egongo da irekia. •

ALBOKA ABESBATZA

Ahots berrien bila

Alboka Abesbatzak entseguak hasi ditu. Abesbatzako helduen atalak, herritarrek animatu nahi dituen entsegura hurbildu eta probatzen.

Herriko taldea astelehen eta ostegunetan, 20:00etatik 21:30era, biltzen da Arantzazuko Ama Birginaren eliza azpiko lokalean. •



Arg.: Zabaleta auzoa

Sardin janarekin ederki ospatu zuten udazkenaren etorrera Zabaleta auzoko lagunek.

Udazkenaren ataria Zabaletan

Udazkena iritsi da eta udari agur esan behar izan diogu. Urtaro aldaketa hori asteazkenetik ostegunera izan bada ere, Zabaletako lagunek ostirala irailaren 17an ospatu

zuten udazkenaren etorrera.

Auzotar eta lagun ugari izan ziren Blas plazan bildu zenetik ostegunera izan bada ere, Zabaletako lagunek ostirala irailaren 17an ospatu zuten. •

Euskaraz mintzatzeko aukera

Solaskide programa abian da berriro, izen emateko epea irekita dago

Lasarte-Oriaren euskalduntze prozesua azken urteotan aurrera doala ezin da ukatu. Gero eta gehiago dira euskaraz bizitzeko aukerak ere. Hauetako bat Ttakun Kultur Elkarteak antolatzen duen solaskide programa da. Astero hainbat herritar elkartzen dira elkarrekin euskaraz jarduteko.

Solaskideren bidez euskararen erabilera sustatzen da "euskaldun zaharrak eta berriak bikoteka, zein taldeka bilduz eta euskaraz mintzatzuz" azaltzen digute antolatzaileak. Gainera, euskaraz aritzeko aukera hau kafetxo bat hartuz, kirola eginez edo edozein ekintza egiten den bitartean gauzatu daiteke "beti ere solaskideen gustuen arabera antolatzeko aukera dago".

Askotan euskaraz ez trebatzeko argudioak "ezjakintasuna, inertzia eta utzikeriak estalita agertzen zaizkigu". Eta hori argi esperimentatu dute solaskide programa azkenaldian izena eman dutenek.

Euskara ikastea eta euskaraz aritzea gauza ezberdinak dira. Askotan euskara jakin bai, baina beldurrak eta trebetasun faltak errazago egiten zaigun erdarara jotzeko ohitura dago. Horregatik, "gero eta aukera gehiago eman behar zaizkie gure hizkuntzan hasten diren horiei, beldurrak kendu eta euskaraz bizitzeko aukera izan dezaten".

Hau guztia martxan jartzeko, hoberena lehendabizi "solaskide talde edo bikoteka momentu babestuetan aritzeko parada izatea" eta ondoren "bizitza errealean, normaltasun osoz aritzea".



Mahai bakoitzean gai ezberdin bat, hori izan zen aurreko urtean Mintzodromoaren I. edizioan Jalgin ospatu zena.

Susana zu zara gure perfila!!

Solaskideen 2009-2010 ikasturtean gertatu zen. Susana etorri zen Solaskide taldera notizi txar batekin: PL1 (hizkuntz perfil bat lortzeko azterketa) ez zuen gaitasunik. Euskaldun zaharrari kontatu eta atsekabetuta zegoenez, hau, saiatu zen animuak ematen, oso ondo hitz egiten zuela esaten zion gainera. Susanak ez zekien zer gertatzen zitzaien baina azterketa zuen bakoitzean blokeatuta geratzen zen.

Bere atsekabea Porrotx pailazoaren belarrietara iritsi zen, hain zuzen ere, Jalgi tabernan Mintzodromoa egin zen egun batean. Hara non Porrotxek bertan magia egin zuen eta ba al dakizue nori eman zion Porrotxek bere buruaren marrazki osatua? Bai noski, Susanari. Eta hala esan zion: "Susana zu zara gure perfila!" eta solaskide guztiei DVD bana oparitu zion. Susana poz pozik joan zen etxera Porrotxek emandako marrazkiarekin.

Hurrena berriaz azterketa zuenean, Porrotxek emandako marrazkia patrikan hartuta joan zen azterketa eta zer iruditzen zaizuen geratu zela? Ba, bai, azterketa gaitasunik zuten Susanak. Porrotxen magiak lagundu zion gaitasunik. Bere buruarekin konfiantza edukitzen eta aurrera egiten bere euskaldun izan nahi horretan. Hau horrela bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila...gu bakoitzaren baitan.

bizitza errealeara salto egin ahal izateko".

Eta hori burutu ahal izateko, hemen duzu Ttakun kultur elkarteak eskaintzen dizun eginkizuna.

Euskaraz trebatzeko

Guzti hau gutxi ez balitz, gainera, zure solaskide taldeaz aparte, urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen dira; antzerkia, kantua, eskulanak, sukaldaritza, ikastaroak, festak, afariak... solaskide guztiak biltzen dituzten ekintzak. "Besteak ezagutzeaz gain, bizitzako hainbat esparruetan euskaraz aritzeko aukera eskainiz".

Euskaldun zaharrak

Hizkuntza bat jakitea aberasgarria da "baina besteei trebatzen laguntzea are gehiago" diote eta euskaldun zaharrei gonbidapena luzatu diete: "animatu eta parte hartu gurekin. Egin zaitetz solaskide, esperientzia polita da".

Lasaitasunean aritu

Ordubetez euskaldun zahar bat behintzat egongo den talde batean aritzeko aukera ematen dizu solaskide progra-

ma "bai kafetxo bat hartzen, bai bueltatxo bat ematen, talde bakoitzak aukeratzen duen zer eginez aritzeko dira, beti euskaraz".

Hoberena, hizkuntza berria dugun horren erabilpenean lotsak alde batera uztea eta aritzea da. Lehendabizi babestuta "hurrengo pausua,

amaraun ludoteka

! Eskulanak, lorezaintza, txotxongiloak, mozorroak, ipuin kontaketak, pijama festa...

GUAY pasako dugu!

Ttakun Kultur Elkarte (Geltoki 4, behe) // 943 371448 // aisia@ttakun.com // www.ttakun.com

<p>STOCK AZOKA Naterpearen eskutik lasarte/oria <i>Irailaren 25ean eta 26an</i></p>	<p>parafarmazia Pintore Kalea I behea Tel.: 943 369679</p>	<p>ABREU Geltoki 2 • LASARTE-ORIA Idiazabal kalea 32 • URNIETA Tel.: 943 365846</p>	
<p>Aritzya Juan XXIII., 10 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 362353 www.merceriaaritzya.com</p>	<p>ELEKTRIZITATEA ARREGUI Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521</p>	<p>INFORMATIKA MARTINE MULTIMEDIA Uzturre plaza 2, behea • Tel./Faxa: 943 360591 LASARTE-ORIA</p>	<p>Maite BETELU Gestoria Aholkularitza Inmobiliariako zerbitzuak Aseguruak Etxebizitza administrazioa Aralar plaza 4 eta 6, behea • LASARTE-ORIA Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117</p>
<p>Bideo Lagunak Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria Tel.: 943 373134 jose@bideolagunak.com www.bideolagunak.com</p>	<p>BITONA BEROGAILUEN INSTALAZIOA OSASUN APARATUAK ETA INSTALAZIO INDUSTRIALAK Kale Nagusia 73 • Lasarte-Oria Tel. eta Faxa : 943 364599 www.fontaneriabiyona.com pili@fontaneriabiyona.com</p>	<p>ekain liburudenda Pablo Mutiozabal, 2 20160 Lasarte Oria Tel./Faxa: 943 36 62 28 www.ekain.net</p>	<p>DECO 42 TAPIZERIAK Kale Nagusia 42, behea LASARTE-ORIA Tel.: 943 362659</p>
<p>Goxogi Geltoki kalea, 6 Telefonoa :37 08 48 LASARTE - ORIA</p>	<p>Sturbe OINETAKOAK Nagusia 34 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 365626</p>	<p>IZARRA BITXITEGIA Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384 Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945 www.izarrabitxitegia.com</p>	<p>Copisteria Kalkos IMPRESIO DIGITALA Pintore kalea 7 • Lasarte-Oria Tel.: 943 376424 • Faxa: 943 376155 www.copisteriakalkos.com</p>
<p>HARATEGIA URDAITEGIA Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 372668 Faxa: 943 370737 patxilarranaga@telefonica.net www.patxilarranaga.com</p>	<p>LIZARRI OPTIKA Hipodromo etorbidea 8 (Anbulatorio zaharraren aurrean) Tel.: 943 366482 LASARTE-ORIA</p>	<p>PERFUMERIA Ana Díez Maiane Uistin 4 20.160 Lasarte-Oria Tf. Fax.: 943 37 08 46 652 77 11 01</p>	<p>Loidi Kalea, 4 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 366 471</p>
<p>MAYA LENTZERIA KORTSE-DENDA Hipodromo etorbidea 8 LASARTE-ORIA Tel.: 943 363665</p>	<p>NOGUES Gizonentzako moda IOGI Nagusia 21 • Lasarte-Oria Tel.: 943 361403</p>	<p>Okela HARATEGIA Hipodromo etorbidea 8 • Lasarte-Oria Tel.: 943 361885 Kale Nagusia 41 • Lasarte-Oria Tel.: 943 363912</p>	<p>MERTZERIA ETXEKO LENTZERIA ETA ARROPA UMEENTZAKO ARROPA Olmi Nagusia 46 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 370950</p>
<p>ORMAZABAL LORADENDA Nagusia 33 • Tel.: 943 361535</p>	<p>OTAEGI ALTZARIAK Geltoki kalea 13 • Lasarte-Oria 20160 Tel.: 943 370048</p>	<p>SYKOA BURDINDENDA Nagusia 35 • Lasarte-Oria Tel.: 943 361195</p>	<p>VENTANAS SAN MIGUEL Zirkuitu ibilbidea 10 (gasolindegia atzean) Tel.: 943 362457 • LASARTE-ORIA</p>
<p>ZUMABURU LIBURUDENDA Nagusia Kalea 46 behea 20160 Lasarte Oria Tel.: 943 371386</p>	<p>S. COOPERATIVA DE CONSUMO MICHELIN Juan XXIII plaza 2 behea Tel.: 943 364647</p>	<p>aldaz horts klinika - clinica dental Deitu gure zerbitzua ezagutzeko 943 366 377 Ola kalea, 10 San Bartolome, 22 Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870 www.dentalaldaz.com</p>	<p>URRUZOLA MERTZERIA - DROGERIA Kale Nagusia 42 Tel.: 943 362979</p>

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 25

11:00etan, Ostadar - Hernani (Infantilen Ohorezko maila) Michelinen.
12:30ean, Ostadar - Santo Tomas Lizeoa (Emakumezkoen KDT F-11) Michelinen.
15:30ean, Ostadar - Hondarribia (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.
17:15ean, Ostadar - Añorga (I. Erregionala) Michelinen.

11:00etan, Intxurre - Ostadar (I. Kadetea) Elorri, Alegin.
15:30ean, Munibe - Ostadar (Erregional Gorena) Berio, Donostian.
15:30ean, Real Union - Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila) Gal, Irunen.
15:45ean, Danena - Texas Lasartearra (I. Erregionala) Elbarrena, Zizurkien.
16:00ean, Urnieta - Ostadar (I. Jubenila) Urnietan.

Igandea 26

10:30ean, Ostadar - Tolosa (Infantil txikiak) Michelinen.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 25

16:00etan, Donibane-Pari Berri - ISU leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Donibane Kirolegia.

Igandea 26

12:00etan, Jarrilleros - Aldaz H.K. (Nazional B maila) Zubi-Alde kiroldegia, Portugaleten.

PILOTA

Larunbata 25

11:30ean, Beloki - Intza (Eskuz binaka III. Kadetea) Zumarragan.

16:15ean, Intza - Azkoitia (Eskuz binaka II. Kadetea) Aginagan.
16:15ean, Intza - Zazpi Iturri (Eskuz binaka I. Kadetea) Aginagan.
16:15ean, Intza - Zestoa (Eskuz binaka III. Seniorra) Aginagan.
16:15ean, Intza - Lagunak I (Eskuz binaka I. Seniorra) Aginagan.



ITXIRRINDULARITZA

Igandea 26

08:30ean, Ostadarreko zikloturista taldeak Betelura egingo du irteera.



Aldaz Hertz Klinika taldeak Nazional B mailan mantentzea du helburua, aurtan ere.

Aldaz H.K. taldeak mantentzea du helburu

ISU Leihoak taldeak ere, 2010-2011 denboraldiari hasiera emango dio asteburu honetan Pasai Donibanen

Asteburu honetan, maila federatuko Aldaz Hertz Klinika eta ISU Leihoak areto-futbol taldeek 2010-2011 denboraldiari hasiera emango diote.

Herriko bi taldeek kanpogan jokatuko dute denboraldi honetako lehenengo partida, Aldaz-ek Portugaletera egingo du bisita eta ISU Leihoak Pasai Donibanera.

Nazional Bn, maila igo da

Aldaz taldea iaz mailaz igo zen eta Nazional B mailan mantentzea lortu zuen. Aurtan ere, Oscar Garciak zuzentzen duen taldeak helburu hori du.

Jende berria du taldean eta baja batzuk, baina taldea mantentzen du. Aurre-denboraldian partida bat jokatu dute Lakunzaren aurka eta herriko taldeak garaipena lortu zuen.

Gogoekin helduko diote aurtengo erronkari, baina denboraldi zaila dutela aurreratu digu Aldazeko entrenatzaileak, "iaz baino zailagoa izango da mantentzea. Maila handia zegoen iaz eta goiko mailatik jaitsi diren 5 edo 6 taldeek gehiago igoko dute aurtan. Guk jaitsieran ez egoteko lan egingo dugu".

Horretarako, herritarren laguntza eskatzen dute. "Partida garrantzitsuetan biltzen da jendea; bestela, hiru edo lau katu daude partida ikusten. Jendea herriko taldeak ikustera joan behar da eta hauek animatu," aipatu digu.

Partida zaila

Igandean 12:00etan jokatuko dute denboraldiko lehenengo partida. Portugaleten izango da Jarrilleros taldearen aurka. Aurreko denboraldian ere

lehenengo jardunaldietan lehiatu zirela aipatu digu Oscarrek. "Han galdu egin genuen, baina bueltako partidaren Lasarte-Oriako kiroldegian guk irabazi genien" gogoratu du.

Honetaz gain, partida zaila izango dela onartu du, "denboraldiko lehenengo partida da, entrenamendu gutxi izan ditugu. Hala ere, hasieratik gogor hasteko asmoa dugu, maila honetan mantentze baita gure asmoa."

ISU Leihoak

ISU Leihoak, aldiz, Gipuzkoako Ligan azken urteetan goera lehiatu du eta iaz eskuan izan zuen Euskal Ligarako goiera.

Larunbatean, Donibane-Pari B erri taldearen aurka jokatu behar du Eneko Molinaren taldeak. •

Kiroletako oharrak

Buruntzaldea I.K.T.

Buruntzaldeko Igeriketa Kirol taldeko neska-mutilek hasi dituzte 2010-2011 denboraldia prestatzeko entrenamenduak Udako Kirolegiko igerilekuan.

Arduradunek jakin arazi digutenez, denboraldi hasieran zehar taldean sartzeko aukera badago oraindik, beraz inor interesaturik egonez gero, haiekin harremanetan jartzea besterik ez du.

Informazioa nahi duenak 696 506 673 telefono zenbakira deitu, Ruben, edo irailean zehar 18:00etatik 19:30era kiroldegian Borjagatik galdin dezan.

LOKEko tenis atala

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko tenis atala lanean dihardu.

Tenisera jokatu nahi duten haur eta gaztetxoak, Michelingo Kirol Gunera hurbil daitezke 18:30etik 20:30era entrenamendu ordutegiak jakin eta arduradunek taldeak sortzaten.

LOKEko gimnastika atala

LOKEko gimnastika atalak gogora arazten du aurrebenjaminetako nes-

kak uriaren 2an hasiko dituztela entrenamenduak. Adin honetako neskek, larunbatetan izango dute bere saioa, 11:00etatik 12:00etara.

Beste mailatako entrenamenduetako ordutegia honako hau izango da, ostegun eta ostiraletan 19:00etatik 20:00etara; larunbatetan, benjaminak 12:00etatik 13:00etara eta beste mailak 12:00etatik 14:00etara.

Izena emateko entrenamendu orduetan kiroldegira gerturatu edo 676 872 029 telefono zenbakira deitu behar du interesatuak.

Beltzak-Ostadar Errugby Eskola

Oporren ostean, Beltzak-Ostadar Errugby Eskola lanean hasi da, Michelingo Kirol Gunean. Entrenamenduak igandero dira 9:00etatik aurrera.

Eskolako arduradunek 2002ko abenduaren 31a baino lehen jaiotako haurrei deialdia egiten diete entrenamendura hurbildu eta kirol hau ezagutzeko.


Eskolan izena emateko hiru aukera daude, bata Ostadarreko bulegoan, bestea 666 321 059 telefono zenbakian edo beltzakrt.com web orrialdean.

Haurrentzako igeriketa ikastaroa

Haurrentzako hasiera eta erdi mailako igeriketa ikastaroa eskainiko du udal kiroldegia, urriaren 1etik azaroaren 29ra.

2004an eta 2005ean jaiotako haurrek astean hiru saio izango dituzte eta bi talde osatuko dira, bata astelehen, asteazken eta txandakako ostiraletan, eta bestea, astearte, ostegun eta txandakako ostiraletan. Saiok arratsaldeko 17:20etatik aurrera izango dira.

Izena emateko azken eguna da gaur. Interesatuak hurbildu kiroldegira. •



2004an eta 2005ean jaiotako haurrek igerian trebatzeko aukera aparta dute.

Egunero

Erakusketa

GOIZANE MENDIZABALEN argazkiak izango dira ikusgai. Jalgin, egun osoan zehar.

Ostirala, 24

Jaialdia

HAURREN III. BIZIKLETA-MARTXA Mugikortasunaren Astearren barruan. Andatza plaza, 16:00etatik aurrera.



Larunbata, 25

Azoka

STOCK ETA SALDOEN III. AZOKA antolatu du Aterpea merkatarri-elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin. Michelingo Udal Kirolgunea, 10:00etatik 20:00etara.

Urteurrena

MENDI KAFE ROCK tabernaren VI. Urteurrena dela eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte: 11:00etan hamaiketako



Jazz rocka Jalgin Buffaloren eskutik

BUFFALO taldeak kontzertua eskainiko du Jalgin. Buffalo taldea David Gorospek (baterian) Ander Ederrak (gitarran) eta Joanes Ederrak (baxuan) osatzen dute eta orain urtebete inguru sortua da.

Beraien asmoa abeslaria aurkitzea bazen ere, segituan hirukote moduan zuten soinua gustatu eta talde instrumental bezala aurrera egitea erabaki zuten.

GAUR, HILAREN 24AN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN
23:00ETAN, EUSKARAZ

tabernan; 13:00etan motor eta autoen erakusketa S.Pedro elizaren ondoan; 14:30ean bazkaria eta ondoren Transistores 50 taldearen emanaldia. Iluntzean zozketak egingo dira eta opariak banatu. Mendi Kafe Rock, 11:00etatik aurrera.



Larunbata, 2

Jaialdia

LASARTE-ORIAKO VII. AKORDEO JAIALDIA Zero Setteren eskutik. Jaialdian, Zero Sette orkestrarekin batera Paris-Moscou bikote frantziarra eta Accordion in Moder, Sabadellgo boskotea arituko dira. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean, BIETARA.



Eskutitzak

Jose Luis Elkororen aldeko martxa

Larunbat eguerdian pasatuko da Lasartetik Jose Luis Elkororen aldeko eskatzen duen martxa. Bergarako alkate ohia kartzelan dago 2009ko maiatzetik EGIN egunkaria argitaratzen zuen ORAIN enpresako ardura-dun izateagatik. 24 urteko kartzela zigorra jarri zion Entzutegi Nazionalak eta Gorenak 21 urtera jaitzi. 16 hilabete iraun zuen epaiketari irregularitasunak salatu zituzten nazioarteko juristek, Gorenak gerora aitortu zuen Egin itxeko erabakian okerrak izan zirela, baina ez du atzera bueltarik izan. Zuzendaria, zuzendari ordea eta Administrazio Kontseiluko beste 9 kide kartzelan daude orduak.

Injustizia horren aurrean Bergarako herria altxatu egingo da. 1979tik Udalean izan diren alderdietako kideak elkartu dira, PPKoak izan ezik, urte hauetan alkate izandakoek bat egin dute eskaerarekin eta Jose Luis Elkororen libre plataformak hainbat ekimen bultzatu ditu. Azkena kirol elkarteak, irailak 25ean, larunbata, Hondarribi eta Bergara artean burutuko duen kirol martxa: 150 km. egingo dituzte, txirindulari, korrikalari, igerilari, arraunlari, eta piraguiestek txandaka Jose Luis Elkororen askatasuna irudikatzen duen lekukoarekin.

Goizeko 9etan aterako da Hondarribitik; Pasai Donibanera txalupan eramango da; San Pedrorra igerian; 10:45ean Martuteneko kartzela kanpoan txalaparta joko diote Elkorori; EGINeko langile ohiek eramango dute lekukoa Hernanin 11:00etan; ondoren kostako bidetik Lekeitoraino abiatuko da bizikletaz eta handik Elgeta, Antzuola eta Bergara, Elkororen jaioterrira, lantokira eta bizi den herrira. Bidean, Zarautzen ikurrina bat aire-ratuko dute bertako Imanol Murua alkate ohia eta Elkorok alkateen mugimenduan eta ikurriaren legalizazioan egindako lana gogoratuz eta Lekeition, gerra zikinaren aurkako mezu bat botako da itasora botila batean. Nahi duenak parte hartu dezake ekimenean, Martutenetik bizikletaz egingo da martxa Zarautzeraino eta Hernanin 11:00tan oinez Zinkoeneatik Udalextera.

Jon Altuna

Liburutegiko ordutegia
Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00era
eta 17:00etatik 21:00era
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara
Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa
Urriaren 15etik aurrera ostiralero programa!
FMko 105,5ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era

Oharrak

Etexeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etexeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Odola ateratzek

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egingo dituzte Osasun Zentroan datorren astelehenean, hilaren 27an, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitezte, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko pultsera eta kami-seta beltz bat.
Gauza hauen jabeak direla

egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Udako Txokotako argazkiak urrian

Udara honetan, uztailea eta abuztuaren, Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako txokotan egondako haurren argazkiak jasotzen dituzten CDak eskuragarri egingo dira urritik aurrera Amaraun ludotekan (Ola kalea 1). Argazkien CDA jasotzeko ordutegia honakoa da 17:00etatik 20:00etara.

Ikasturte hasiera Estudio del pintor akademian

Heldu, zein umeentzako margo klaseak hasi dira Estudio del Pintor akademian. Ez da matrikularik ordaindu behar eta ordutegi malguak dituzte. Interesatuak hurbildu Urko Plaza 1 zenbakira, Saso-

eta edo deitu 943 367 731 telefono zenbakira.

Margo eta marrazki eskola

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta helduentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastaroetako izen-ematea irailaren 17, 20, 22, 24, 27 eta 29an egingo da, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Iñigo de Loyola 12 behean duten egoitzan.

Zitek-ek ikasturteari hasiera eman dio

Zitek akademiaren kurtso berria hasi da. Klase partikularrak jasotzea interesatzen bazaizu, lekua daukazu. Informa zaitez 943 36 31 06 telefonoan edo egoitzan bertan astelehenetik ostiralera 15:00- 19:00 tartean.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri Txintxarri aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Ipar hazi, hego geza

Mugikortasun astearen barruan, bideoforum-a eman zen astelehenean kultur etxean

Mugikortasunaren astea ospatzeko hainbat ekitaldi ospatu dira herrian. 'Ipar hazi, hego geza' filmaren emanaldiarekin eman zitzaizen hasiera antolatutako ekitaldiei: Familia batek Europan zehar bizikletan egindako bidaia erakutsi zen irudien bidez. Lehendabizi hiru minututako bideoa eta ondoren, 25 minutuko argazki muntaia. Gaur arratsaldeko 16:00tan hasita Andatza plazan bizikleta festa izango da.

Mikel eta Rosa senar-emazteak, Eki eta Lur seme alabekin Europan zehar egindako bidaia ikusi zen astelehenean Kultur Etxean, Lasarte-Oriako Mugikortasunaren Asteo egitarauaren barruan. Zikloturista familia honek, bi ume txikiak, 2.000 kilometroko bidaia egin zuen pasa den urteko udaberrian. Europako hainbat tokitan izandako bizipen guztiak filmaren izenburu berberarekin argitaratu den liburuan ere jaso dituzte.

Irudiz jositako abentura

25 minututako ikusentzuzkoan Lur da protagonista, bere eskutik kontatzen da bidaia. Familiako kide txikiak kokatzen gaitu uneoro bidaia honetan: Strasbourg-etik atera, Alsacia, Rhin ibaia, Suitza, Alemania, Danubio ibaiaren sorkuntza, Ulm, Baviera, Ingolstadt, Ragensburg, Deggendorf, Austria, Viena, Paris... zeharkatu eta etxera itzuliko dira. Bi hilabete izan ziren, abenturaz jositako bidaia.



Alemanian zikloturistentzat egokitutako espazio ugari aurkitu zituzten.

Ez da bidai bakarra

Aipatutako bidaia ez da Europan zehar familia honek egin duen bidaia bakarra. Hori bai, lauak elkarrekin egin duten

bakarra bada. Lehendabizi bikotea ibili zen Euskal Herria, Asia, Kuba... ezagutzen. Ondoren Eki hirugarren bidaiarian bihurtu zen, eta

Europako bidaiari Lurrek familia borobildu du. Azken bidaia honi edo aurrekoiei buruzko informazio gehiago eta nondik norakoak jakin nahi izanez gero www.bizibidaia.net web orrialdea begiratu daiteke.

III. Bizikleta martxa

Bizikleta jostailu bat izateaz gain, ibilgailu bat ere bada eta Mugikortasun Astearen, urtero bezala, bere lekua izango du. Bizikleta festa izango da gaur Andatza plazan: Arratsaldeko 16:00etan etxeko txikiak herrian barrena bizikleta martxa disfrutatzeke aukera izango dute. Ordu erdi beranduago, gazteen eta helduen txanda izango dugu. Biak Andatza plazatik aterak dira. Bizikleta martxa eta gero, haurrentzako jolasak eta yinkana burutuko dira, hauek ere Andatza plazan. •

Euskara ikasteko aukera

Diru-laguntzak
%40 - %75
2010-2011

ona eta merkea

Edozein lasarte-orientarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatarientzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Beko kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 17ra

Muntteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behe
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aek.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 25era

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org

Euskara Batzordea
LASARTE-ORIA

